

Udan Euskaraz 2026

NORI ZUZENDUA:



- * Haur Hezkuntzako bigarren zikloko bigarren mailatik (2021. urtean jaiotakoak) Lehen Hezkuntzako seigarren mailara arte, biak barne.
- * D edo B ereduan ikasten dutenentzat.
- * Beste hizkuntza-ereduetan ikasten duten hurrek ere parte hartu ahal izango dute kanpainan, baldin eta gutxienez eredu bereko zazpi hurreko taldea osatzen badute eta antzeko adina badute.

DATAK/ORDUTEGIA:



Ekainaren 22tik uztailaren 17ra arte.

10:00etatik 13:00etara

INSKRIPZIOAK eta ORDAINTZEKO MODUA:

- * **Otsailaren 9tik martxoaren 27ra. 948-012 012** ren bidez.
Astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 18:00etara.
- * Ordaintzeko modua: Lehenetsunez 948-012 012 telefonoaren bidez edo Udaleko edozein kontutan ingresatuz. Izen-ematea formalizatzeko, izena emateko epean ordaindu beharko da.
- * Ordainketa banku-kontuan eginez gero, ordainagiria Udaletxean aurkeztu beharko da izena emateko epean.



TARIFAK :



- * Prezioa: 35,00€ pertsona bakoitzeko.
- * Bi anai-arreba edo gehiago bertaratzen badira: 58,00€, bertaratutako anai-arreben guztientzako.
- * Ordainketatik salbuetsita egongo dira egoera ekonomiko larrian dauden familiak, baldin eta Udalari aldeztu aurretik ez ordaintzeko eskaera egiten badiote eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek horretarako propio egindako txostena aurkezten badute.

Zerbait gehiago jakin nahi izanez gero deitu Udaletxera 948-562446



IZENA EMAN AURRETIK, IRAKURRI ARRETAZ:

1- Onartzeko irizpideak

- a) Inskripzio-ordena zorrotzean
- b) Egindako inskripzio guztiei ezin bazaie erantzun, honela emango zaie lehentasuna:
 - 1.- Olaztin gutxienez urtebeteko antzinatasuna duten haurrak. Guraso dibortziatuen adingabeen edo antzeko egoeren kasuan, haurra legezko zaintza dela-eta errolatuta ez badago, haurraren tutoreetako batek bete beharko du eroldan gutxienez urtebeteko antzinatasuna.
 - 2.- Olaztin errolatu gabeko haurrak, gutxienez Olaztin errolatuta dagoen lehen mailako senideren bat dutenak eta gutxienez urtebeteko antzinatasuna dutenak.
 - 3.- Olaztin errolatu gabeko haurrak, gutxienez Olaztin errolatuta dagoen bigarren mailako senideren bat dutenak eta gutxienez urtebeteko antzinatasuna dutenak.
 - 4.- Olaztin errolatu gabeko haurrak, Domingo Badosen eskolatuta daudenak.
 - 5.- Olaztin errolatu gabeko haurrak, tutoreetako batek udalerrian lan egiten badu.
 - 6.- Olaztin errolatu gabeko haurrak.

2- Epez kanpoko inskripzioak eta bajak:

- a) Epe horren ondoren ez da inskripziorik onartuko, salbu eta adingabeak kanpaina honetan parte hartzeko beharra justifikatzen duten organismo edo erakunde publikoek egin ditzaketen eskaerak.
- b) Taldeek gehienezko parte-hartzaile kopurua ez badute, soilik ireki ahal izango da izena emateko beste aldi bat, taldeak osatzeko, baina inoiz ez adin-tarte bakoitzerako ezarritako gehieneko ratioa gaindituta. Eskaerak hutsik dauden plazak baino gehiago eginez gero zozketa bat egingo da.
Ezarritako ratioak honako hauek dira:
 - Haur-hezkuntzakoak (4-6 urte): 8-10 pertsona begirale bakoitzeko.
 - Lehen hezkuntzakoak (7-12 urte): 12-14 pertsona begirale bakoitzeko.Ratio horiek murriztu ahal izango dira hezkuntza-premia bereziak dituzten adingabeen kasuan.
- c) Bajak: baja izena emateko epean gertatzen bada soilik itzuliko da ordainketa, aldez aurretik Udalaritik jakinarazita edo 948-012 012an jasota



3-Kanpainaren araudia:

- a) Gutxienezko asistentzia: Ezinbesteko baldintza izango da gutxienez segidako 2 astez edo ondoz ondoko 10 egunez bertaratzea, ezinbesteko arrazoiak (gaixotasunak, ospitaleratzeak, zaintzak) izan ezik, horiek ahalik eta lasterren jakinarazi beharko baitzaizkie kanpainaren koordinatzaileari. Egoera horren berri inskripzioaren unean emango da, baliozkotu ahal izateko. Kontrol-mekanismo bat ezarriko da, eta betetzen ez bada, datorren urteko kanpainan ez onartzea ekarriko du.
- b) Neska-mutilak begiraleen ardurapean daude 10:00etatik 13:00etara. 10:00etatik aurrera, helduak ez dira Sutegi parkean egongo.
- c) Bilketa-ordua 13:00etan izango da. Garaiz egingo da, ez lehenago, ez geroago.
- d) Norbaitek 10:00ak baino beranduago joan behar badu edo 13:00ak baino lehen joan egin behar badu, begiraleei jakinaraziko zaie.
- e) Kanpainatik egun baterako kanporatuko dira hiru egun berandu joaten direnak, justifikatutako arrazoirik gabe eta aldez aurretik abisatu gabe.
- f) Haurren arduradunek begiraleei jakinarazi beharko diete zeintzuk joaten diren etxera bakarrik.
- g) Honako hauek hartuko dira hutsegite larritzat:
 - Pertsona, objektu eta leku guztiekiko errespetu eta ardura falta.
 - Iruzkina sexistak, homofoboak, arrazistak, gordofobikoak
 - Begiraleen jarraibideak ez betetzea.
 - Ahozko erasoak, eraso fisikoak eta psikikoak3 hutsegite larri eginez gero, kanpainatik 2 egun kanporatuko dira.
- h) Oso hutsegite larritzat hartuko da mutilek edo neskek beren kabuz alde egitea, eta berehala kanporatua izango da 2 egunez.
- i) Gerta daitezkeen portaerak baloratuko dituzte begiraleek, eta neurri egokiak hartuko dituzte.
- j) Udan Euskaraz kanpainan izena emateak araudi hau onartzea dakar.

4-Ezeztatzeko aukera:

Udalak beretzat gordetzen du ezinbesteko arrazoiengatik ezeztatzeko aukera; kasu horretan, ordaindutako zenbatekoa itzuliko da.